XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA SAILA

5472

AGINDUA, 2011ko irailaren 23koa, Kulturako sailburuarena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta egiten dituen jardueren prezio publikoak finkatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 33. artikuluak ematen dizkidan ahalmenen indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 21eko 161/1998 Dekretuaren arabera eta Ekonomia eta Ogasun Sailak espediente horren aldeko irizpena eman duela kontuan hartuta, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– HABE erakunde autonomiadunak eskainitako zerbitzuengatiko eta berak egindako ondasun eta jarduerengatiko salneurri publikoen zenbatekoa ezartzea.

2. artikulua.– Argitalpen eta material didaktikoen salmenta, paperean zein euskarri elektronikoan.

2.1.– HABE erakunde autonomiadunaren aldizkako argitalpenen urteko harpidetzen salneurriak, % 4ko BEZa barne, honako hauek dira:

Argitalpena	Harpidetzaren salneurria
Hizpide aldizkaria (3 ale)	14,40 euro

2.2.– HABE erakunde autonomiadunaren aldizkako argitalpenen ale solteen salneurriak, % 4ko BEZa barne, honako hauek dira:

Argitalpena	Ale soltearen salneurria
Hizpide aldizkaria	6,10 euro

2.3.– Hona hemen HABE erakunde autonomiadunak paperean argitaratu dituen material didaktiko berrien salneurriak, % 4ko BEZa barne:

Argitalpena	Salneurria
Itzulpen Saila 51. «Hizkuntza-irakaskuntzako ikastaroa. Praktika eta teoria»	6,25 euro

3. artikulua.– Mintegi, kongresu, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulak.

3.1.– HABEk euskara-irakasleentzako antolatzen dituen aurrez aurreko saioak zein modulu telematiko bidezko prestakuntza-jarduerei dagokien matrikularen zenbatekoa iraupenaren arabera ezarriko da.

5 ordu bitarteko ikastaroak	16,75 euro matrikulako
6-10 ordu bitarteko ikastaroak	33,50 euro matrikulako
11-20 ordu bitarteko ikastaroak	50,25 euro matrikulako
21-30 ordu bitarteko ikastaroak	67,00 euro matrikulako
31-40 ordu bitarteko ikastaroak	83,75 euro matrikulako
41-50 ordu bitarteko ikastaroak	100,50 euro matrikulako
51-70 ordu bitarteko ikastaroak	134,00 euro matrikulako
71-100 ordu bitarteko ikastaroak	201,00 euro matrikulako
101-150 ordu bitarteko ikastaroak	268,00 euro matrikulako
151-250 ordu bitarteko ikastaroak	402,00 euro matrikulako
251 ordu baino gehiagoko ikastaroak	536,00 euro matrikulako

3.2.– Matrikularen salneurri horiek % 25eko igoera izango dute, bai bere berezitasunengatik EAEtik kanpoko irakaslea eskatzen duten irakaskuntza-jardueretan, honen joan-etorri, mantentze– eta egonaldi-gastuei aurre egin beharra baitago; edo baita bat-bateko itzulpen zerbitzua eskatzen dutenetan ere.

3.3.– Beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako prestakuntza-jarduera zein ikastaroetan, matrikulak erakunde bakoitzak bere gain hartzen dituen gastuen arabera eta lehen azaldu diren salneurri publikoen proportzioan ezarriko dira.

3.4.– Beste erakundeek antolatutako prestakuntza-jarduera zein ikastaroetan HABEren zerbitzuak jaso nahi badira, 76,21 euro orduko ordainduko da zerbitzu horiengatik.

4. artikulua.– Euskara irakasteko zerbitzuak.

Hizkuntza-trebakuntzarako ikastaroak eman, koordinatu eta jarraipena egiteagatik honako hauek izango dira salneurri publikoak:

a) Taldeak administrazio publikoetako langileenak direnean:

1.– Euskaltegi publikoak bere geletan emandako ikastaroak: 106,09 euro taldeko eta orduko.

2.– Euskaltegi publikoak administrazioaren lokaletan emandako ikastaroak: 97,26 euro taldeko eta orduko.

3.– Euskaltegi pribatuak bere geletan emandako ikastaroak: 75,23 euro taldeko eta orduko.

4.– Euskaltegi pribatuak administrazioaren lokaletan emandako ikastaroak: 68,96 euro taldeko eta orduko.

b) Barnetegiak (HAEEri egindako zerbitzuak):

1.– Ikasturtean zehar, barnetegian egiten diren astebeteko egonaldiei dagozkien prestakuntza-zerbitzuak: 1.985,42 euro taldeko eta asteko.

2.– Administrazio publikoarenak ez diren euskaltegietan egiten diren egonaldi eta ostatuei dagozkien zerbitzuak:

● 11,69 euro eguneko eta mantenu erdian.

● 29,24 euro eguneko eta mantenu osoan.

3.– Barnetegian egindako prestakuntza-ikastaro, egonaldi eta ostatuei dagozkien zerbitzuak: 562,74 euro taldeko eta eguneko.

c) Administrazio publikoetako langileen taldeetan sartzen ez diren ikasleak:

1.– Ikastaroak euskaltegi publikoetan: 8,84 euro ikasleko eta orduko.

2.– Ikastaroak euskaltegi pribatuetan:

● Lurraldeetako hiriburuetan: 6,27 euro ikasleko eta orduko.

● Gainerako herrietan: 4,80 euro ikasleko eta orduko.

3.– Kurrikuluaren 4. mailako ikastaroaren matrikula:

● Euskaltegi publikoetan emandako ikastaroak: 2.920 euro ikastaroko.

Talde-saioak: 1.330 euro ikastaroko.
Tutoretza: 1.590 euro ikastaroko.

● Euskaltegi pribatuetan emandako ikastaroak: 2.070 euro ikastaroko.

Talde saioak: 940 euro ikastaroko.
Tutoretza: 1.130 euro ikastaroko.

d) Barnetegietan egiten diren ikastaroetako matrikulak:

● 2 edo 3 asteko (eta 90 orduko) ikastaroak: 990,86 euro ikastaroko.

● 4 asteko edo hilabeteko (eta 120 orduko) ikastaroak: 1.337,65 euro ikastaroko.

e) Hizkuntza-trebakuntzarako ikastaroen koordinazio eta jarraipenei dagozkion zerbitzuak:

● Talde bereziak: 5,17 euro taldeko eta orduko.

● Ikasle solteak bestelako taldetan: 0,46 euro ikasleko eta orduko.

f) Eguneko/orduko bertaratzeari buruzko datuak.

● Tarifa: 1,81 euro ikasleko hilean.

g) Autoikaskuntza-sistemak.

1.– Hizkuntz prestakuntza lanpostuan bertan.

● Autoikaskuntza-sistemaren urteko lizentzia. Haren barruan izango dira: softwarea instalatzea eta eguneratzea, zerbitzu teknikoa, erabiltzeko argibideak, mailaketa-azterketak, pedagogia-

jarraipena eta tutoretza/aholkularitza saioak, urtean 8 hilabetez. Lizentziaren prezioa kontratatutako lizentzia-kopuruaren araberakoa izango da:

Lizentzia-kopurua	Urteko lizentzia
1-20	1.060 euro lizentziako
21-50	940 euro lizentziako
51-100	870 euro lizentziako
101-180	800 euro lizentziako
181-300	780 euro lizentziako
301-500	740 euro lizentziako
>501	700 euro lizentziako

Aipatu prezioak % 15 igoko dira tutoretza/aholkularitza saioak urte osora hedatzen direnean.

Era berean, aipatu prezioak erdira murriztuko dira baimenak 6 hilabetetik beherako indarraldia duenean.

● Mintza-saioak.

Lantokian osatutako taldeetan: 68,96 euro orduko eta taldeko.

Autoikaskuntza-zentroan (astean ordubete, 8 hilabete): 455 euro ikasleko.

Telefono bidez (banaka, 20 minutu astean, 8 hilabete): 682 euro ikasleko.

● Zerbitzu osagarriak.

Lizentzia finkotik mugikorrerako edo interneterako aldaketa (instalazio packa barne): 128 euro ikasleko.

Ikasle-aldaketa (lizentzia beste ikasle bati pasatzea): 80 euro ikasleko.

Programaren erabilera, asistentzia eta aprobetxamenduaren hileroko txostena: 4,10 euro txosteneko eta ikasleko.

Programaren erabileraren hileroko txostena: 1,44 euro txosteneko eta ikasleko.

Tutoreek zentroa kokatuta dagoen herritik kanpo dagoen lantokira mugitu beharra badute, joan-etorrietako gastuen ordainketak zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren araberakoak izango dira.

2.– Hizkuntz prestakuntza irakastegietan.

Autoikaskuntza ikastaroko matrikula. Matrikulen prezioak ikastaroaren iraupenaren araberakoak izango dira:

Ikasturte osoa (eurotan)	Ikasturte erdia (eurotan)	Udako ikastaro trinkoa (60 ordu) (eurotan)
1.440	720	432

3.– Lotura-eskubideak.

Euskaltegien erregistroan inskribatu gabeko zentrotan HABEren autoikaskuntzarako ikas-plataforma erabiltzeko urteko baimena.

● 1-20 erabiltzaile: 1.390 euro urteko eta zentroko.

● 21 eta 100 erabiltzaile bitartean: aurreko prezioari urteko 69,29 euro gehituko zaio 20tik gorako erabiltzaile bakoitzeko.

● 100 erabiltzaile baino gehiago: 100 erabiltzailetik gorakoek ez dute beste gehigarririk izango.

● Prezio publiko honetatik kanpo geratzen dira sarean instalatu ahal izateko plataforman egin beharreko egokitzapen-lanak, eta baita zerbitzuaren mantenu-gastuak ere.

5. artikulua.– Hautaketa eta hizkuntza ebaluaketako zerbitzuak.

Hona hemen erakunde autonomo honetako hautaketa eta hizkuntza-ebaluaketako zerbitzuen prezioak:

5.1.– Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren mailaren bat egiaztatzeko azterketa eskubideak.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren mailaren bat egiaztatzeko azterketetarako sarrera-zerbitzuaren prezio publikoaren zenbatekoa 18 eurokoa da deialdiko.

5.2.– Teknikarien laguntza frogak prestatzeko, aplikatzeko eta zuzentzeko: 52,53 euro lanorduko (BEZa barne).

Horrez gain, teknikarien joan-etorrietako gastuen ordainketak zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren araberakoak izango dira.

5.3.– Euskararen ezagutza egiaztatzeko probetan entzumena ebaluatzeko entzungaiak hornitzea:

● HABEren entzungaien bankuari dagokion plataforma erabiltzeko urteko baimena: 41.280 euro urteko.

● Entzumena ebaluatzeko erabilitako entzungai bakoitza: 361 euro.

● Entzumena ebaluatzeko erabilitako entzungai bakoitza eta lotutako galderak edo itemak: 516 euro.

6. artikulua.– Ordaintzeko baldintzak.

6.1.– Ordainketak dirutan egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluak ezarritako bitartekoetako bat erabiliz:

- Legezko dirua.
- Txekea.
- Kreditu- edo zor-txartelak.
- Banku-transferentzia.
- Banku-helbideratzea.
- Ekonomia eta Ogasun Sailaren baimena duen beste edozein.

Ogasunean eskumena duen sailak baimena eman dezake aurreko paragrafoaren c), d) eta e) idatz-zatietan adierazten diren ordainketa motetan telematika bidea erabil ahal izateko. Horretarako, teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz ordainketa egin ahal izateko beharrezko betekizun eta baldintzak arautuko dira.

6.2.– Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren mailaren bat egiaztatzeko azterketa-eskubideen kasuan, hautagaia matrikulatzen den unean, eta finantza-erakundearen bitartekaritza bidez, egingo da prezio publiko horren ordainketa.

6.3.– Prezio publikoen ordainketa eskura egin ahal izango da HABEren egoitzan (Vitoria-Gasteiz 3-6, Donostia). Dagokion fakturako datatik aurrera hiru hilabeteko epea izango du interesdunak ordaintzeko, goian zehaztutako b), c), d) eta e) idatz-zatietan adierazitako bideren bat erabiltzen denean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 23a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.